

## **MERKATUAREN SEGMENTAZIOA**

Gure proiektuaren ideia nagusia gizartearen eta ingurunearen, modu orokorrean munduaren, ongizatea bilatzean oinarritzen denez, honetan parte hartu nahi duen edozeinerentzat egongo da zuzenduta.

Proiektu honen helburuak bete daitezzen, gure inguruko herritarrek mundua hobetzeko motibazioa eduki behar dute. Zakarrontzi inteligente hau mundu osoan erabiltzea izango da helmuga, beraz geroz eta jende gehiagok erabilia, orduan eta onura handiagoak eragingo dira.

Gainera, zakarrontzi honek laguntza mekanismo bat bezala jardungo du birziklatzen ez dakitenentzat. Ez birziklatzearen arrazoi nagusienetako bat birziklatzen ez jakitea izaten da, beraz, teknologia berriko zakarrontzi hau bereziki birziklatzen ez dakitenentzat edo gaizki birziklatzen dutenentzat burutua egongo da.

Baina gure etorkitzunerako eta aurreko guztiaren gaineko helmuga produktu hau munduko biztanle ororentzako eskura egotea da. Gure nahia etorkizun batean produktu hau aukera bat izan beharrean derrigorrezko gauza bat izatea da. Denok eduki beharreko makina bat izatera igaro nahi dugu aurrean ditugun urte hauetan.